

Zumeltzako atsedean parkeatik (1) aterako gara. Dimaranzko norabidean erreptidea hartuz. Erreptidean abiatuz, eskuinalean Zumeltzako zelaia. Erreptideak behearazko joera hartzen duen une beretan, eskuin eta ezker bi pista edo aldai dazuzkagu: guk ezkerrekoa. Barrazar aldera zuzentzen dena hartuko dugu. Pista hartu eta berehala, garraduari pasoa oztopatzeko burnizko parria bat igaroko dugu. Zumeltzako zelaia eta Saibe aldea atzean utziaz. Eskuinalean oiaz betetako gunera. Arboela deritona.

Itreera puntutik 25', Muntixagana aspian, eta erabat alerrez inguratuta dagoen Muntixakorta ardi txabolaren parean izango gara, eta hementik, bideak erakusten dugun aldapa leuntxoan zehar aurrera egingez. 10' Eskortetako-ganaren maldean zehar izango gara, pistaren ezker edo berehealdean ardiaren eskortak zeuden beste garetan, eta berehala, 5', ezker eskuin alabrezko hesiz ixlita bidea igarotzen dan gunera. Altimepe edo Alitongo Landara.

Jada, 40' gure oinetan eta alboetako gartzaiando gazteak atzean utziz, puntu honetaraino ekarri gaituen bidean eskuintik sortzen dan burdibidea Makaztut aldera doana dugu; dana dela guk elorri pistatik jarraituko dugu, bideak egiten duen zig-zaga eta aldapa igaroz eta, ia berhala, eskuintik Altun eta Kasitilloko tonrorera doan aldai aurrikusko dugularik. Orain ere, Altunerako aldai alboan utziz, aurrera egingo dugu honaino ekarri gaituen ondo harritutako bide berberetik. Segidan Txabola-zaharko sakona eta aurrearazoago Landaberdeko zelaigunera eta beronen azpitaleko tokan Mantxixikorko kortabasa. Bidean aurrera egingez, mendiak egiten duen hurrengo sakona, Kasitilloste. Gune honetatik, tokarantz begiratu; ezkerrealdan Porrutako ezpaldea eta bestealdean, artoaren eskuinalean, Garkikorta. Ibilien, bidean aurrera egin ahal. Altungo landetik honaino 20' inguru pasa dira, eta konturatu bank garbure zabal batera helduko gara, Muntixikieta, (2) eskuintik Altun eta Kasitilloko tonrorretik datorren aldai elkartu zaigularik. Puntu honetan, aiti! Zumeltzan hartu dugun pista albo batera utziaz, ezkerretarantz, zelalain sartuko gara, aurrikusten dugun pista hartuz. Lurrezko aldai honetatik eta aldapa-behera hasten den puntutik, aurrez aurre eta eskuinalean Idemolizoko larreak; ezkerrealdan Garkikorta Txikerra, lehen tonrorra, eta Garkikorta.

Aldaian segiz, kontenedore gisako prefabrikatu bat eta larretan sartzeko lata edo sarriera dagoen gunera helduko gara: Kortailun, Zumeltzako zelalaren hego mendealdera dagoen gaina. Puntu honetatik Zumeltzara begiratu, Errekasikuko artoa, bertan Ikaragarritzko pagodia ei zean 1945-48 urteetan boteta. Idemolizko, Kortailun ingurune honetan, udalak errematean ematen zituen ideak azkena 60ko hamarkadan 4.500 peze-

tatan suertatu ei zean, "ide-erremata" hartzen zuenak, sortak egin eta saildu egien zituelarik ondoren.


Ordu bat eta 15' dareragu irten garenetik; aurrera segiz, hiruzpialu minultan, Errekasikugana joko dugu, eskuinalean Elormendi aldea eta lasterrera ezkerrean laka batez ixlita Zumeltzako atsedean parkera doan aldai. Guk aurrera egingo dugu, 20' eskuintik beste lurrezko pista bat sartuko zaigu gure norabidean. Elormenditik datorrena; pista beran, gerrostean egindako txabola geru gertuan. Aurrera egingez, gure ezkerrealdan Larrazeko landak. Elormendik datorren erreka-txoa pasatuz beste aldai batera itengo gara: Presagotxieta aldea. Bidegurutze honetan eskuinera egingo bagenu, gerrostean egindako su ariskuetarako pain batzuekin egingo genuke topo. Dana dala, guk ezkerretarantz, hau da, aurrera egingo dugu. Lasterrera, eskuintik beste aldai edo pista bat sartuko zaigu, aurrearazoago beste bat eta, berehala, animalai pasoa oztopatzeko parria; segidan, Montebideo erreka (Dinako urak Legutitoko Urtegi-Zadorra-Ebroa isurtzen dituen erreka), eta berehala bidegurutze bat. (3)

Bidegurutze honetan eskunerantz jarraituz Zelatetako Turbol zelaia, atsedean parkera eta Otxandio-Ubide errepidera aterako ginate, aldiz ezkerreara egingez Astola baserria. Baina guk zuzen eta aurrera, bideak gorantz joera hartzen duen norabideari ekingo diogu. Berehala, alabrezko hesiz ixlita eta Otxandio eta Dinako udalerrien mugan zehar abiatuz Azpikarria helduko gara, (4) Gorozartegianaren magalean, bi pagoren itzalean, areharritzko munari Ikaragarria dagoen kokagunea. Ihen garenetik hamar bat kilometro eta 2 ordu eta 15' inguru igaro dira. Puntu honetatik bidean aurrera egingez, hamar minuitan Dima-Otxandio erreptidera helduko gara.

Itreera puntutik 2 ordu eta 25' inguru pasatu dira. Erreptidearen aurrez aurre eta beste aldean sortzen dan aldai hartuko dugu, (5) bide honetatik jarraituz Kurutzeganezara helduko garetarik. Gune honetaraino ekarri gaituen, ondo harritutako aldaiak, nahiz 90° eskunera egingez jarraitzen duen, guk zuzen egingo dugu aurrera antzinako burdibidearen azatarnak finkatuz. Bide honen eskuinalean Azerizuluetako gana. Beraz atreslan aipatu bidegurutzean hartutako norabidean zuzen egingez aurrera, eskuintik harritzko pista berri bat gehitzen zaigula ikusi arte jarraituko dugu; Pagonausi. (6) Hemen, eskuintik sartu zaigun pista hori Anteparaluzetako eskolelatik jatorkun aldai da, honen eskuinalean Telleraburu eta ezkerrealdan Agarreko eta Abeletxeko ganak. Puntu honetatik ezkerreara Montebideoa doan burdibidea, sasiz ixlita. Esan bezala, aurrera egingo dugu ekarri dugun norabidean eta zuzen, 15 bat minuitan Aretxbakar jo arte.

Aurrez aurre aurkitu dugun belardi, larre edo garbigunea dugu Aretxbakar. Eskuinaleko sakona Gatzaminarroko artoa izenez ezagutua eta ezkerrealdan Kortazuriko barrankue. Guk aurrez aurre eta eskuinalek aurrikusten dugun Urkiolaitik datorren aldai jo behar dugu, ezkerretarantz hartuz. Pista honetatik jarraituz gure eskuinalean Arantzazuetoako mendizerra. Aldaian segiz, pinudi gazte batetan sartu eta lasterrera, pista bi norabidean zabaltzen da, guk eskuinteora hartuko dugularik Urxirriko txartoa jo arte. Ordu erdi inguru igaro da Aretxbakarren atera garenetik.

Arkaola baserrian Saibe (7) eta bertara doan pista atzean utziz, Zumeltza aldera, behearantz zuzenduko gara harritutako piston zehar eta beiti aldai negusi hori jarraituz, beronek eramango baikitatu Arkaolako zelaik zehar Zumeltza eta helmuga-abiapuntura. 25' Arkaolaitik eta 3 ordu eta 30' pasatxo irten garenetik, 14 km. inguru egin ditugularik.



Muntixikieta

